



[HERNANI GOIZUETA ARANO EREÑOTZU ASTIGARRAGA](#)
[Multimedia](#)
[Publizitatea](#)
[Bazkide egin](#)
[KOMUNITATE](#)

[Hemeroteka](#)



albiste//ZAPOREAK

«Ohore bat izan da guretzat, lotura estua daukagulako Hernanirekin»

«Bihotz bihotzez» eskertu zuen atzoko errekonozimendua, Zaporeak proiektuak.

HERNANI

2018/01/14 00:00 Igandea

Sagardo berriarekin batera, Zaporeak proiektua izan zen atzoko protagonista nagusia. Proiektuko kideek herritarren berotasuna, Aitor Ruiz de Eginoren eskultura, eta Luis Intxauspe alkatearen esker hitzak jaso zituzten, egiten ari diren lanagatik, bai Wukron, Angel Olaranekin elkarlanean, eta baita Greziako errefuxiatuekin ere.

Eta jasotako errekonozimendua eskertzeko, «ia hitzik gabe» geratu zirela onartu zuten Zaporeak proiektuko kideek: «ezustean harrapatu gintuen gonbiteak, eta ohore bat da Hernaniko txotx irekiera egitea, bereziki lotura estua daukagulako herriarekin. Angel Olaranekin hasi ginen eta jarraitzen dugu lanean, eta ezin dugu ahaztu hasiera hartan Hernaniko Udalak eman zigun babes». »



HERNANI Otsailak 26

ESKELAK

GOIZUETA

Pedro Narvarte
Petricorena

Eta nabarmendu zuten, beraiekin batera, errefuxiatu guztiak zeudela oholtza gainean: «bi urte daramazkigu beraiei jaten ematen, euren duintasunaren zati bat itzularaziz. Eta beraiegentik eta beraientzat jarraituko dugu lanean, elikadura duin bat izan dezaten. Baina hori posible bada, herriei eta herritarrei esker da. Beraz, bihotz bihotzez eskerrak denoi».

Atsegin dut 0 Tweet Whatsapp Emaila Inprimitu

IRUZKINAK

0 Iruzkin kronika-eus 1 Saioa hasi

Gomendatu Partekatu Zaharrenetik hasita



Hasi eztabaida...

HASI SAIOA HONEKIN

EDO ERREGISTRATU DISQUS-EKIN ?



Izena

Egin lehen iruzkina.

Harpidetu Gehitu Disqus zure webguneraGehitu DisqusGehitu

Pribatutasuna

HERNANI

MENUA

*Mari Kruz Olano
Tolaretxipi*



Agenda Bateratua

//Erabiltzaileak

Puri-Purian

Kolpeka lurra esnatu, ... (1)

103 lagunek, aurten ... (1)

gurean.eus (/)